



Esp.kodea: 2021PRPT0002

Gaia: 2022KO PLANTILLA ETA
LANPOSTUEN ZERRENDA
Hasiera eguna: 2021/11/19

ZIURTAGIRIA

Ana Belen Hidalgo Corral andrea, ARRASATEKO UDAL AGURGARRIKO IDAZKARIA

NEUK ZIURTATUA:

Udal Plenoak, 2021eko abenduaren 14an egindako bilkuran, besteak beste, honako akordioa hartu zuen:

“2022KO LANPOSTUEN ZERRENDA (2021PRPT0002).

Udal Plenoak, aldeko 12 boturekin (EAJ-PNV eta PSE-EE) eta 9 abstentziorekin (EH BILDU eta ELKARREKIN ARRASATE-Podemos/Ezker Anitza-IU/Equo Berdeak), Barne Antolaketaren Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“Apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 90.2. artikulua xedatzen du Udal Korporazioek egingo dituztela euren antolaketako lanpostu guztien zerrendak, eta agindu edo arau horrek eta apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 126.4 artikulua, Toki Araubideari buruz indarrean dauden legezko xedapenen testu bategina onartzen duena, gehitzen dute, lanpostu horiek egokituko zaizkiela Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legeak Euskal Autonomia Erkidegorako Funtzio Publikoari buruz osatuta duen oinarrizko legerian jasotako terminoei.

Bestalde, Enplegu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bategina onartzen duen 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak ezartzen du ere Administrazio Publikoek egituratuko dutela euren antolamendua lanpostuen zerrenden bidez eta antzeko beste tresna batzuen bidez, eta horiek osatuko dituzten, behintzat, lanpostuen izenak, sailkapen profesionaleko taldeak, atxikita dauden kidegoak edo eskalak, hala badagokie, hornitzeko sistemak eta ordainketa osagarriak.

Pertsonal Sailak 2022 urteko lanpostuen zerrenda egin du, ezarritako gutxieneko beharrezko datuak jasotzen dituen ereduan eta Udaleko langile funtzionario, lan-kontratuko langile eta behin-behineko langileentzako diren lanpostu guztiak hartzen dituen, aurrekontu dotazioa dutenak.

Kodea	H21/01113	Udala	ARRASATE/MONDRAGON
Data	2021/abe./29	CUDO	000.0055.AAAANATL.R.b2TK
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAANATLR.b2TK		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu			





Esp.kodea: 2021PRPT0002

Gaia: 2022KO PLANTILLA ETA
LANPOSTUEN ZERRENDA
Hasiera eguna: 2021/11/19

2021eko azaroaren 18ko negoziazio kolektiboaren ondoren egindako proposamena eta espedientean jasotako txostenak ikusita, Barne Antolaketaren batzordeak akordio hau hartzea proposatzen dio Osoko Bilkurari:

Lehena: Onartzea 2022ko Lanpostuen Zerrenda.

Bigarrena: GAOn argitaratzea onartutako agiria, aurrekontuen laburpenarekin batera, eta, 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuan 127 artikuluan jasotakoa betez, haren ale bat bidaltzea baita ere dagokion administrazioari.”

Eta honela jasota gera dadin eta ondorio egokiak sor ditzan, ziurtagiri hau luzatu eta sinatzen dut, Alkateak agindu eta ontzat emanik, Arrasaten, 2021eko abenduaren 29an.

O.E.

Alkatea

Kodea	H21/01113	Udala	ARRASATE/MONDRAGON
Data	2021/abe./29	CUDO	000.0055.AAAAATL.R.b2TK
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAANATLR.b2TK		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu			

